GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024-05-23

ENPRESAREN EKONOMIA

EPAIMAHAI ZK.: 4 eta 5 **KALIFIKAZIOA**

DEITURAK _____

IZENA _____

NANa/A

NTa _____

========== LEHEN ZATIA. TEST ERAKO ARIKETA ==========

+ 0,25 puntu erantzun zuzen bakoitzagatik. - 0,10 puntu erantzun oker bakoitzagatik. Erantzun gabeko galdera (edo erantzun bat baino markatu direnean) = 0 puntu.

Ingura ezazu biribil batekin galdera bakoitzaren erantzun zuzena

1. Enpresa "sistema" moduan hartuta, zein dira haren ezaugarri nagusiak?
   a. Produktiboa, mendekoa eta antolatua izatea.
   b. Itxia, independentea eta hierarkizatua izatea
   c. Irekia, autoerregulatua, globala eta sinergiaduna izatea

2. Nola deitzen zaio baliabideei etekinik handiena ateratzeko eragile ekonomiko batek duen gaitasunari?
   a. Efizientzia.
   b. Eraginkortasuna.
   c. Mozkina.

3. Zuzendaritza Kontseilua hauetako bateko berezko organoa da:
   a. Unibertsitate-sozietatea.
   b. Banako enpresa.
   c. Sozietate kooperatiboa.

4. Enpresa batek bere banaketa- eta salmenta-prozesuen kontrola bereganatzen duenean, honela esaten zaio:
   a. Aurrerako integrazioa.
   b. Atzerako integrazioa.
   c. *Outsourcing*a edo azpikontratazioa.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024-05-23

ENPRESAREN EKONOMIA

5. "100 Kapitala" kontua honako masa honetan sailkatuko da:
    a. Aktibo korrontea.
    b. Ondare garbia (funts propioak).
    c. Aktibo ez-korrontea.

6. Enpresa barnean "talde informalak" eratzea lotuta dago:
    a. Elton Mayo-rekin.
    b. Eredu "fordistarekin" eta "toyotistarekin".
    c. Henry Fayol-ekin.

7. Enpresa baten galera-irabazien kontuak informazio hau ematen du:
    a. Zenbat diru daukan enpresak, zorrak kenduta.
    b. Ekitaldiaren emaitzaren bolumenari buruzko informazioa ematen du eta, horretaz gainera, irabazi edo galera horien zergatiak zein diren azaltzen du.
    c. Zenbat diru eskatu beharko den epe laburrean, porrot teknikoa saihestu nahi bada.

8. Enpresa batek ez badu hirugarrenekin zorrik, hau gertatuko da:
    a. Aktiboa = Garbia
    b. Aktiboa = Garbia + Pasiboa
    c. Aktiboa + Pasiboa = Kapitala

9. “25 urtetik beherako emakumeak, Internet egunean 4 ordu baino gehiago erabiltzen dutenak, beren ikasketen, ingurumenaren eta ekologiaren gaineko kezka dutenak” izeneko kategoria honako hau izan daiteke:

    a. Kategoria bat, merkatu-inkesta bat egiten denean puntuaziorik baxuena lortzen dutenei aplikatzen zaiena.
    b. Merkatu-azterketa bateko segmentazioetako bat, biztanleria multzo homogeneotan multzokatzen denean.
    c. Marketinaren 4 D-etako bat, hots, merkatu-azterketa bateko ezinbesteko prozesua.

10. Hauek dira ekonomiako ekoizpen-faktoreak:
    a. Makineria, inbertsioa, antolaketa eta lurraldea.
    b. Kapitala, lurra, lana eta teknologia.
    c. Petrolioa, Internet, elektrizitatea, gasa eta bit-coinak.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024-05-23

ENPRESAREN EKONOMIA

BIGARREN ZATIA. ARIKETA PRAKTIKOAK

ELOY-MERLIN enpresak honako ondare-kontu hauek aurkeztu ditu, 2023ko abenduaren 31n itxiak.

1. Kutxa, €	300	10. Bezeroak	700
2. Bankuaren k/k	6.000	11. Garraiorako elementuak	12.000
3. Makineria	20.000	12. Zerbitzuak emateagatiko hartzekodunak	1.000
4. Informazioa prozesatzeko ekipamenduak	4.000	13. Epe luzeko zorrak kreditu-erakundeekin	12.000
5. Hornitzaileak	6.000	14. Epe laburreko zorrak kreditu-erakundeekin	6.000
6. Salgaiak	10.000	15. Zordunak	3.000
7. Eraikinak	25.000	16. Kapital soziala	60.000
8. Higigarriak	7.000	17. Kobratzeko merkataritzako efektuak dituzten bezeroak	8.000
9. Erreserbak	5.000	18. Ordaintzeko merkataritzako efektuak dituzten hornitzaileak	6.000

1. Kalkula itzazu balio hauek: (0,5 puntu bakoitzeko)

Aktibo ez-korrontea		
Aktibo korrontea		
	Erabilgarria	
	Bihurgarria	
	Izakinak	
Funts propioak		
Pasiboa, GUZTIRA (korrontea eta ez-korrontea)		

2. Kalkula ezazu maniobra-funtsa (0,5 puntu) eta azaldu emaitza (0,25 puntu).

3. Adieraz ezazu nola kalkulatzen diren likideziaren eta kaudimenaren (berme izena ere ematen zaio) ratioak (formula) (0,25 puntu bakoitzeko)

4. PHANTOMAS SL enpresak oheko arropa fabrikatzen du. Guztira, enpresaren aktiboa 700.000 eurokoa da. Pasibo osoa (Pasibo ez-korrontea + Pasibo korrontea) 390.000 eurokoa da. Balantze horrekin, aurreko ekitaldian 52.000 euroko irabazia lortu du, interesak eta zergak ordaindu aurretik. Ekitaldi honetako zergak 14.000 euro izan dira, eta finantza gastuak (komisioak, interesak), 27.500 euro. Egin eragiketa hauek:

(0,75 puntu bakoitzeko)

a) Kalkula ezazu enpresaren errentagarritasun ekonomikoa.

b) Kalkula ezazu finantza-errentagarritasuna.

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA
GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA
2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024-05-23

ENPRESAREN EKONOMIA

5. Energia berriztagarrietan inbertitzen duen talde batek Nafarroan inbertitu nahi du. Bi aukera ditu: haize-parke txiki bat Taxoaren, eta eguzki-instalazio fotovoltaiko bat Gorraitzen. Taulako aurreikuspenekin eta balio eguneratu garbiaren (BEG) irizpidearen arabera, bietako zein hautatuko du? Merkatuko interes-tasa i=% 5.

(1,25 puntu)

HO = Hasierako ordainketa Fi = Kutxako fluxu garbiak aldi bakoitzean.

Inbertsioa	HO	F1	F2	F3
Haize-parkea	25.000	5.000	15.000	20.000
Eguziki-instalazio fotovoltaikoa	60.000	10.000	25.000	30.000

6. TXISTORROSIS farmazia-enpresak obesitatea desagerrarazten duen ukendu bat garatu du. Ukendu-tutuak 50 euroan saltzen ditu Nafarroa guztiko farmazietan. Produktua garatzeko nabeak alokatzeagatik 100.000 euro ordaintzen ditu hilabetean, 60.000 euro soldatengatik, eta 40.000 euro pantente, aseguru eta lizentziengatik. (denak ere hilabetero). Kalkulatu denez, ukendu-tutu bakoitzaren produkzio-kostua 30 eurokoa da unitateko.

Datu horiek eskuan dituzula, kalkula ezazu zein den enpresaren errentagarritasun-atalasea (itopuntua) eta azaldu labur zer den. (1 puntu)

Irudika ezazu grafiko batean: (0,5 puntu)

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARA SARTZEKO PROBA

GIZARTE ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA

2024ko DEIALDIA

4/2024 EBAZPENA, urtarrilaren 25ekoa

2024-05-23

ENPRESAREN EKONOMIA